

PROIEKTUA AURKEZTEKO PIEZA

Gure helburua, *Naisebi* ludoteka bat sortzea izan da, hurrei eta familiei Euskara eta Euskal kultura sustatzeko ahalik eta modu atsegin eta dibertigarrian. Gure helburua, familiei haurren heziketan laguntza eskaintzea da, baliabide praktikoak emanez, etxean eta eguneroko bizitzan aplikatzeko modukoak. Bertan, jarduera interaktiboak, jokoak, ipuin kontaketak, kantak eta metodologia edota pedagogia desberdinak (Pikler, Montessori, Waldorf...) eskaintzen ditugu. Haurrari bere garapen osoan laguntzen diogu, soziala, afektiboa, kognitiboa, psikologikoa... Gure ludotekak metodologia berritzaileak eskaintzen ditu, hurrengo belaunaldien garapena sustatuko duena. Horrez gain, langileek formakuntzak jasotzen dituzte hau aurrera eramanez ahal izateko, eta gaiaren inguruan gehiago informatzeko.

Gaur egun, Euskarari ez zaio hainbesteko garrantzia ematen. Horregatik, sortu nahi dugu ludoteka bat non Euskara eta Euskal kultura sustatuko direnak. Gure balio proposamena familia eta haurren arteko loturak indartzea da, hezkuntza prozesu atsegina eta erraza bihurtuz, eta aldi berean, Euskararen eta Euskal Kulturaren transmisioa modu natural eta atseginean eginez.